

Jon Sarasua euskaltasunaz

EUSKALTASUNAREN norabideaz, oldozpen batzuk. Izenburu hori hartuta ordubetetik gorako hitzaldia eskaini zuen Jon Sarasuak Elgoibarraren Gotzon Garateren omenez antolatutako hitzaldi zikloan. Hitzaldi osoa ikusteko moduan dago vimeo.com webgunean.

Amaia Nerekan Hamaika Bilbo-ko zuzendari

NEREKAN irailean hasi zen Hamai-ka Bilbo euskarazko tokiko telebistan lan taldea ezagutu eta funtzionamendua aztertzen. Orain

zuzendari lanetan hasi da. Denboraldiko berrikuntzak ondokoak izango dira: Athletic-i buruzko mahai-ingurua, dokumental saioa eta filmen jatorrizko bertsioak.

“Hi!”, hika ikasteko metodoa

JON URRUXULEGIK idatzi du liburua. Txertoa argitaletxeak plazaratu duen lanak honako atalak ditu: historia, gramatika, aditz-aulak, aditz trinkoak, ariketarako testuak, ariketen zuzenketak, lexikoa eta bibliografia.

Larreko Saria aitzindariei

EUSKALERRIA IRRATIAK euskaraz-

ko irratigintzan Nafarroan aitzindari izan zirenei emango die Larreko Saria. Esteban Irigoien apaizak 1963-68 artean Arantzan bultzatu zuen irratia eta Berueten gauza bera egin zuen Jose Manuel Lasarte apaizak. Bigarrenarentzako saria haren kolaboratzaileek jasoko dute, hilda baitago Lasarte. Sari banaketa azaroaren 25ean izango da.

BAHEA

Benito Fizek Karrajua (<http://karrajua.org>) esanak: “Gaur egungo komunikabideak (ez hedabideak soilik) azalera ekartzen ari dira hizkuntza jakitearen kontzeptu ‘klasiko’ horren herrenak nonbait. Beharbada, Serrak dioen modura, honetara hurreratu behar-ko dugu gero eta gehiago: ‘*Sap llen-gua, en cert sentit: sap satisfes les seves necessitats lingüístiques*’ (Hizkuntza daki, nolabait behar izan linguistikoak asetzen daki).

Zaila egingo zaigu gurean halakoei neurria hartzea. Hizkuntzari eman ohi diogun balio sinbolikoaz gainera, elebitasun-diglosiko batean hizkuntz-beharrak asetzeko estrategia instrumental ohikoa beste hizkuntza batera igarotzea denean, baina era berean, horrek akaso esan nahi digu euskarari balio komunikatibo eta instrumentala eman behar zaiola, ‘tranpa’ horiek tranpa izatetik zerbait lortzeko estrategia bihurtu daitezen denon pertzepzioan, ez hizkuntza ez jakitearen seinale lotsagarriak”.

Adorez 11 hiztegiaren egileetako Patxi Uribarrenek Berrian esanak: “Paperezko hiztegiek zein muga dituzten aztertu behar-ko dugu hemendik aurrera, eta paperaren etorkizuna zein izango den. Interneteko hiztegi-berba gehiago gehi daitezke; hor ez dago mugarik, eta, segur aski, ikerketak maizago egitea sustatuko du”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

tALAIAN

Beste harresiak

Berlingo Harresiaren birrinketa, orain hogeitaz urte, protagonista izan da aurreko astean mundu osoko hedabideetan. Batzuek eta besteek, hipokresia gutxi gehiagorekin, Berlingo “lotsaren harresia” desagertzea ospatu dute. Han, birrindutako harresiaren ondoan, Europako politikari garrantzitsuenak agertu dira. “Askatasunaren garaipena” aldarrikatu dute, komunismoa eta sozialismoa, bere horretan, diktaduraren eta totalitarismoaren sinonimo izango balira bezala. Eta ahaztu egin dute, kapitalismo basatiaren kudeatzaile direnek, harresi mingarriago eta basatiagoak sortu dituztela eta sortzen ari direla mundu osoan barrena. Ez gara ari soilik gaur egun munduan existitzen diren harresi politikoez: Zisjordanian palestinarren kontrakoa; AEB eta Mexikoren mugan immigranteen kontrakoa; Mendebaldeko Saharan Fronte Polisarioaren kontrakoa; bi Koreen artekoa; Ziprekoa; gertuago, Espainiako Estatuan, Ceuta eta Melilla banatzen dituen hesia Marokotik datozenen kontrakoa; Euskal Herrian ere, “politikari demokratek” kudeaturik, bada inposaturiko beste harresi bat gure Herria banatzen duena...

Diskriminazioaren harresiez ere ari gara: lanagatik, arrazagatik, erlijioagatik, elbarritasunagatik, orientazio sexualagatik... Europako 30 estatutan egindako inkesta batek dio herritarren %17ak baieztatu duela noizbait arestian aipaturiko diskriminazio horietako baten jomuga izan dela. Espainiako Estatuaren kasuan, galdekaturakoen %70 beldur da krisi ekonomikoak ez ote duen lan merkatuan diskriminazioa handituko. Eurostat-en arabera, bederatzi hilabete behin-behineko 1,7 milioi lanpostu galdu dira Europan. Harresi moderno horiek sortu ditu kapitalismoak, eta horien kudeatzaile politikoak garaipentsu eta hipokrita agertu dira orain, Berlingo Harresi birrinduaren ondoan.

Juan Mari Arregi